

Paula Kasares

IRAKASLEA

Txerrikume erreusa

Anitzetan, txikienek bi halako zigorra jasotzen dute euren miserietatik libratzeko eginahalak —eta pikarokeriak— egiteagatik. Horixe pentsatu nuen lagun batek orain aipatuko dizuedan pasadizo hau kontatu zidalarik. Istoria Ultzaman gertatu zen orain urte andana bat. Lehenago, *erreusa* aziendaren umealdiko kumerik ahulenari erratan zaiola argituko dizuet. Kume erreusa etxean jaten ohi da, ez baita on ez saltzeko ez aurrerako.

Behin, aita bati sos zenbaitxo irabazteko txerriak haztea otu zitzaion. Aita itsua zen eta erositako txerri emea bere semerik gazteenaren kargu utzi zuen. Mutiko esanekoa zen eta aitak errana arduratsu bete zuen.

Umatzeko eguna ailegatuta, txerramak bederatzi kume erditu zituen eta aitak, izanen lituzkeen irabaziez arduratuta, honela erran zion lepondotik helduta seme txikiari: “Urdamak bederatzi kume egin ditik eta heuk zaindu behar dituk feria egunean saltzeko. Erreusa egun horretan janen diagu hire lana saritzeko”. Mutikoa egunean hiru aldiz joaten zen txerritegira txerramari jana eman eta txerrikumeak begiratzera, ama etzanda zegoelarik bere azpian kumerik harrapa ez zezala eta txerrikume guztiek titia har zezatela.



JOSU SANTESTEBAN



‘Seme, urdama umegile ona izan duk baina hi txerrikume zaintzaile hobia izan haiz. Hau txerrikume ederra! Hau erreusa bada, nolakoak dituk bada, bertzeak?’




Feria egunerako egun batzuk baino falta ez zirelarik aitak semeari deitu eta erreusa bereizi eta ekartzeko agindu zion. Semea txerritegira joan eta txerrikumeei begira geratu zitzaion. Han ziren bederatzi txerrikumeak, ongi hazitakoak denak, bat izan ezik. Umealdiko txerrikumerik txikiak doi-doi eginen lituzkeen bi kilo, bertze denek seina kilo pasa zituztela. Haren ardurra eta lan guztiengatik txerrikumetxo ihar horren hezur-azalak sari eskasa irudituko zitzaion mutikoari eta, gainontzeko txerrikumeen izter gizenduak iritzira neurtuta, txerrikume guztietatik handiena eta potoloena begiz jo eta huraxe hartu zuen etxerako.

Mutikoak txerrikumea aita itsuaren eskuetan paratu zuelarik, aitak bi eskuez ia ezin oratu zuen eta honela erran zion semeari aho zabalez: “Seme, urdama umegile ona izan duk baina hi txerrikume zaintzaile hobia izan haiz. Hau txerrikume ederra! Hau erreusa bada, nolakoak dituk bada, bertzeak? Hau diruketa bilduko duguna txerrikume horiek saldu-ta!”. Eta txerrikume potoloa semearen besoetan utzita, honela erran zion aitak lepondotik helduta mutikoari: “Heldu den urteko bi bargasta ekarraraziko ditiat eta heuk ez baten, hiru urdamaren txerrikumeak baizik haziko dituk” ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



EAEko erdal telebista izan nuen hauteskundee-tako berriemaile, ETB1ekin aldizkatuta.

Erdarazkoan adituen artean aurpegi ezagun bat neukan, urteek puztuta eta bisaia lasaituta. TVE1etik eta RNE irratitik nuen ezagun, informatiboetako buru zen. Franco hil ostean egin zen PSOEkoa. Eduardo Sotillos bera. Baina bereziki, Felipe Gonzalezen lehen agintaldiko Espainiako Gobernuko prentsa bulegoko arduraduna zelarik dut gogoratzen. GAL. Iparraldean egin zituen krimenak, eraildakoak jende ezaguna gehienak eta lagunmin bi akabatu zituen garaiak ekarri zizki-

ETB

dan akordura, gobernu haren bertsio ofizialek erraiak zulatzen zizkiguten garai haiek. Beraxe zen, komunikatuak aurpegi maskarrez, bere ahots

profesionalaz irakurtzen zituen bera. Eta hor ikusten nuen ETB *Dosen* eskarmentuzko demokrata legez, gobernu hartako terroristen zuritzaile profesionala izandakoa, hemen, gurean, aldaketa aldarrikatzen, autonomia nazionalismoarekin nahasten, nazionalismo estatala goratzen. Nork ote du ETBn hori kontratatatu izanaren ardura? Ez ote du memoriarik? Ahanzturak jota bizi ote? Eta mahaiko lagunak ez zioten deus gogarazi, Euskadiko jendea abegitsua da kanpotarrekin. ■